

Amurrio, EA-EAJ lehia

EAKo alkate eta EAJko alkategaiaren arteko desadostasunek ezina egin dute zerrenda bateratua.

Alkate izan nahi duenak EH, PP edo PSErekin elkartu beharko du, ziurrenik.



JOSEBA OLALDE

Amurrioko Herriko Plaza.

Arabak bere izena galtzen duen lekutik gertu, Gasteiztik baino Bilbotik hurbilago, pinudiz inguratutako paisaia zoragarri batean, hamar mila biztanleko herri bat ezkututzen da. Amurrio du izena eta senide txikiak ere baditu (Lezama, Arrastaria...). Bederatzi herri batzar guztira. Duela berrogei urte arte nekazari herria zen Amurrio. Garai hartan, zenbait lantegi ezarri ziren bertan (Tubacex, Inausa...), eta biztanle kopurua bikoiztu, nekazari herri txiki hura herri txiki industrial bilakatuz.

Industrializazioak eta hark ekarritako jendetzak eraikitzeke toki ia guztia jan zuten

eta, ondorioz, etxebizitza arloa da egun Amurrioko biztanleen kezka nagusia.

Hori eta Euskal Herrian hasi berri den prozesu politikoa, noski. Lizarra-Garaziko trenaren Aiaraldetik ere igarotzen da. Amurrioko Udaleko 13 zinegotzietatik 11 abertzaleak dira. Horregatik, goi agintari abertzale batek egunotan bertan esan bezala, EAJ-EAK kandidatura

osatu ez izanak ez du hainbeste garrantzirik, gehiengo abertzalea salbu dago eta.

Hauteskunde lehia, lehia pertsonal bihurtu da Amurrion. Pablo Isasi alkateak (EA) eta Antonio Mames

Saratxaga alkate ohiak (EAJ) ez dute ezkututzen beren arteko ezinikusia. Duela hamabi urte Isasik Mamesi Alkate-tza kendu zionean, elkarren lagunak izateari utzi zioten.

PPk, PSEk eta HBk zinegotzi bana dute, eta hirurek bat, bi edo hiru espe-ro dituzte. Emaiz horiek lortzen dituenak hurrengo

Ezaugarriak:

Eskualdea: Aiaraldea. **Biztanleak:** 1991n 9.450 eta 1999an 9.753. **Hautesleak:** 8.099. **Udalaren banaketa:** 13 zinegotzi. EA (7), EAJ (3), HB (1), PP (1) eta PSE (1). **Alkatea:** Pablo Isasi (EA).

hautagaiak

Pablo Isasi (EA) • Lezaman (Amurrioko udalerria) jaio zen, duela 56 urte. Azkenengo 12 urteetan alkate izan da. Batzar Nagusietarako EAJ-EAKo Aiaraldeko zerrendaburua.

Antonio Mames Saratxaga (EAJ) • Amurrion jaioa, duela 45 urte. Eri-zaina da. Azken urteotan zinegotzia izan da, eta 1998ra bitartean euskal legebiltzarkidea.

Aitor Garate (EH) • Arrasaten jaioa, duela 40 urte. Irakasletza ikasi du, eta Aresketa ikastolan irakasle lanak egin ditu azken 15 urteetan. LABeko ordezkaria da.

Santiago Abascal (PP) • Amurrion jaioa. Dendaria da: Amurrion bi denda ditu. Batzar Nagusietako kide izan da bi legegalditan. Aurten ere Batzar Nagusietara aurkeztzen da.

Raul Jose Luaces (PSE) • Amurrion jaioa. Azken lau urteetan zinegotzia izan da.

M. Pilar Agirre (IU) • Urduñan jaioa da, baina Amurrion bizi da. 41 urte ditu. Administrazioako langilea. Duela lau urte IU-EBk ez zuen kandidate-turarik aurkeztu.

lau urteetan agintzeko giltza izango du, EArekin edo EAJ-rekin.

Asier Pz. de Karkamo
AMURRIO

EAJ • Gasteiz

Maria Jesus Agirre
3.000 gutun baino
gehiago bidali dizkiote
iradokizunak eginez

EAJ-EAK Gasteizko Alkatetzarako aurkeztzen duen hautagaiak herritarren iritzia jasotzeko ekimen bat jarri zuen martxan, eta, jakinarazi duenez, Gasteiz buruzko kezka bilduz 3.000 gutun baino gehiago jaso ditu. Agirrek azaldu-takoaren arabera, enplegua, etxebizitza eta trafikoa dira kezka nagusiak. Hala, Agirrek gai horiei heltzeko konpromisoa hartu zuen. Agirre oso pozik dago jasotako erantzunekin, kopurua handia izan delako eta herritarrek beregan «konfiantza» azaldu dutelako. EAJ-EAren hautagaiak azpimarratu zuen jaso dituen gutunen artean asko emakumeek bidalitakoak izan direla. Agirrek azaldu zuenez, «gutunetan azpimarratzen dute oso garrantzitsua dela gobernu bati emakumeen sentsibilitatea ematea».

UA • Araba

Plan Gerontologikoa
hobetzea proposatu du
Mosquerak

UAKo idazkari nagusi Pablo Mosquerak EAEko Plan Gerontologikoa gaurkotu behar dela esan zuen atzo, "arazo sozialari" aurre egiteko. Alkatetzarako eta diputatu nagusitako hautagaien iritziz, Araba Plan Gerontologiko propioa izan behar du. Zaharrentzako egoitza berriak egin eta etxez etxe-ko laguntzak handitu behar direla uste dute, eta Alzheimerren gaixotasuna dutenentzat plan berezia eratu beharko litzatekeela udalen eta Osakidetzaren artean.